



**Nerea SANCHO ESNAOLA**

Sexologian eta bikote harremanetan espezializatutako psikoterapeuta

## Mundua obretan dago

**E**z zait gustatzen kalean egiten ari diren obren-  
gatik kexatzea... **B A I N A** nire leihopean langi-  
leak XXX egun daramatzate demonioko denti-  
sta soinu hori egiten, eraikinaren isolatutako  
fatxada garaikide horietako baten piezak moz-  
ten, eta gainditua nago.

Horren harira, asko estimatzen dudan paziente batek  
esan zidan: «Mundua obretan dago!»

Arrazoia.

Etxeak, kaleak, hiriak eta bizitzak. Denak obretan. Erai-  
kuntzan. Bertan behera botatzen. Berregiten.

**Bizimoduak berrasmutzen, eraldatzen eta birmoldatzen.**

Garai txarra pasatzen ari zarela pentsatzen ari bazara, gal-  
dera bat luzatuko dizut. Agian kaltetua zarela sentitzen ja-  
rraituko duzu, edo, agian, horrez gain beste zirrikitu eta  
itxaropen bat topatuko duzu.

Gaur gure planetan lur-hartu izan bazenu lehen aldiz, to-  
katu zaizun bizitza honetan, zure baldintzak nola biziko ze-  
nituzke? Agian baduzu lana edo agian badituzu ikasketak,  
agian badituzu gurasoak, lagunak edo lagun minen bat,  
beharbada etxebizitza bat berogailuarekin, ahalmen batzuk,  
iaiotasun batzuk, zuri buruzko ezagutzak barne-borrokan  
ez aritzeko, beharbada planak ere bai agendan... Zein itxura  
du lehen eguna izateko?

**Zailtasunetan oportunitatearen hazia dago.**

Aukera berrien potentzialitatea borborka. Identifikatzeko  
gai izatea da zailena. Kaltetuaren bizipena izatetik norabide  
berria ezartzeko zubia gainditu behar.

Egoera hau zer esaten ari zait?

Zaila da ez dagoena egon dadin behartu nahi izate horre-  
tatik benetan dagoena onartzera pausoa ematea. Hori lor-  
tzen dugunean, txapeldunak gara.

Nire bikotea ez da maitekorragoa izango. Den bezala  
onartuko dut konpentsatzen badit, eta bestela banoa.

Nik ez diot inoiz lehentasuna emango kirol intentsoari. Ez  
naiz nire buruarekin horregatik borrokatuko eta disfrutatu-  
ko dut zigiluen bilduma egiten.

Ez dut nahi kimiketako karrera egin, egia esateko. Utzi  
gingo dut. Benetan lurringintzan lan egin nahi dut. Karre-  
ra erdizka utziko dut. Ados.

Sexua ez zait interesatzen benetan. Xamurtasunak bete-  
tzen nau, ez gorputzen sentsazio horiek guztiek.

Adin honekin ezin dut haurrik izan jada. Hau da nire bizi-  
tza. Beste zerbaitean jarriko dut energia hemendik aurrera.

Nire semeak behar bereziak ditu. Horrek eramango nauen  
leku horietara jakin-minez hurbilduko naiz.



Collagea: Kristala puskatuta. SENSATHLON

Uko egingo diogu idealki nahi genuen horri. Ez dago. Ez  
da egongo. Ez gara. Ez gara izango. Listo. Inflexio-puntua  
iritsi da.

Gauza asko galduko ditut. Erabakiko dut zein gauza galdu-  
ko ditudan. Ez naiz horiei begira geratuko. Nire bizitzan be-  
netan gertatuko diren horietan kokatuko naiz.

Bakea.

Gerra bukatu da.

**Pertsona batzuk ez daude bikote izateko prest.**

Batzuek baleude bezala egiten dute antzerkia, baina bene-  
tan ez daude prest.

Norbaiten etxea ezagutzen duzunean, gauza asko uler di-  
tzakezu.

Zer behar duen. Nola biziko den. Zer falta zaion. Zer duen  
soberan.

Nire aspaldi-aspaldiko paziente bat segituan konturatu  
zen ligatzen ari zen mutil hark ez zuela benetan bikotea iza-  
teko jarrerarik. Bere etxean sartu eta zera topatu zuen: ohe  
txiki bakarra, aulki bakarra, plater bakarra, edalontzi baka-  
rra, koilara bakarra... ez dut jarraituko.

Seinaleak.

Itzuli erdia eman eta agur yogur.

Batzuetan saiatzen gara gure bikotea aldatzen. Etxea garbi  
eta txukun edukitzea interesatu beharko litzaioke! Ba ez.

Horretarako, nortasun transplante bat egin beharko ge-  
nioke. Gure kontsultan ez dugu horrelakorik lortu momen-  
tuz. Negoziaketak, elkar-entzuteak, enpatia, mesede-tru-  
keak, etxeko-lanen banaketa... hori bai. Ongi eta bikain.  
AHAL BADUZUE, hobe duzue taxuzko garbitzaile bat aurki-  
tzea. Ez dago erraza, lanbide basatia da hori, ez eman amo-  
re. Bikote gatazkak gutxituko ditu ziur. •